

ABESTIA: HAUR EDER BATEN BILA

Txomin Artola eta Amaia Zubiria

Haur eder baten bila gabiltza zoratzen
ta-izarrak esan digu galdetzeko
hemen.

Jaungoikoaren herri maite
Jerusalem
esan zaiguzu laster Jesus nun
jaio den.

Izar bat agertu da dirdiraz zeruan
kiñuka ari zaigu gabon gaberdian.

Jaungoikoaren herri maite
Jerusalem
esan zaiguzu laster Jesus nun
jaio den.

Opariakin gatoz izarra gidari
eman nahi dizkiogu gaur bertan berari.

Jaungoikoaren herri maite
Jerusalem
esan zaiguzu laster Jesus nun
jaio den.

(En busca de un Hermoso niño) <https://youtu.be/8ZMnvBW17rA>



EGUBERRIAK

Otoitzean



Hasi aurretik

Otoitz giroan ipuin bat irakurriko dugu familian. Ea zertara animatzen gaituen! Guztion artean gogoeta egitera gonbidatzen zaituztet.

Opari pakete bat prestatu eta barruan Jesus haurtxoa sartu. Haurrek ez dezatela ikusi (oparia soilik) eta otoitza amaitzean ireki dezala umeak, eta zein den guretzat oparirik garrantzitsuena deskubritu dezatela.



Ingurua girotu dezakegu

Kandela piztu (Jauna gurekin dagoela irudikatzeko eta otoitz egingo dugula adierazteko). Ebanjelioa irekita: Joan 13, 34

Aska huts bat ere prest izan dezakezue (Jesus haurtxoa bertan ezartzeko)



Ipuina irakurri: Junerentzat irakaspena

June ume apetatsua zen. Gabonak zetoze bazekien eta eten gabe gauzak eskatu eta eskatu ari zebilen. Bere gurasoak saiatzaren ziren ulertarazten Olentzeroren zakuan ez zegoela hainbeste jostailurentzat tokirik beste haur guztiei ere opariak banatu behar zizkielako.

Iritsi zen Eguberri eguna eta familia osoa elkartu zen egun hori ospatzeko. June ordea ez zuen ia denborarik ere izan jendea agurtzeko ere, opariak irekitzen goiz osoa eraman bait zion.

Bere gurasoek Olentzerori eskutitz bat idatzi zioten June eskatu zuen guztia ekar diezaiola eskatuz, hartara ikasgaia ondo jasoko zuelako. Bere lehengusuek elkarrekin jolas eta algara batean zebiltzan bitartean, bera paketeak ireki eta ireki zebilelako. Hasiera batean dibertigarria zen, baina berehala tristurak hartu zuen. Inoiz baino jostailu gehiago zituen baina inoizko eguberri tristeena iruditu zitzaion.

Urrunean familia sumatzen zuen hizketan eta barre algaran, elkarri istorioak kontatuz eta eguberri kantak Jesus haurtxoari abestuz (bere jaiotza ospatzen ari ziren). Eta bera dena galtzen ari zen. June ongi ulertu zuen Eguberrietan garrantzitsuena ez direla opariak, familiaren maitasunaz disfrutatzea baizik.

Egile ezezaguna



Gogoeta

Sarri begirada garrantzi gutxi duten gauzetan jartzen dugu. Eguberri jaiak datoz eta Jesus haurraren "urtebetetze" eguna ospatuko dugu, bere jaiotza. Eta guk jaia ospatuko dugu etxean, opariak jaso eta goxo jan. Aiton-amonekin, lehengusuekin eta familiakoekin elkartuko gara. Berak digun Maitasuna ospatzeko garaia dugu eta familiako maitasunean igarotzera gonbidatuak gaude.

Gurasook ere, gure seme alabek zoriontsu bizi dezatela gabonak nahi izaten dugu. Eta ipuin eta ebanjelioko txatal honekin nahi duguna zera da, haurrek uler dezatela oinarritzko maitasun mezua, familiaren maitasunean Jesusek eman zizun agindu nagusia ulertu eta praktikan jartzen hasten den tokia dela.



Irakurketa

Juan 13, 34

Agindu berri bat ematen dizuet: elkar maita dezazuela. Nik maitatu zaituztedan bezala, maitatu zuek ere elkar.



Elkarrizketa

June oso pozik zegoen, Eguberrietan ze opari jasoko zuen pentsatzen.

- Zuk ze opari eskatzen duzu?
- Zer jaso behar duzu zoriontsu izan zaitezen?
- Ebanjelioren irakurgaiak zer esaten digu?

**IREKI OPARI PAKETEA
eta ikusi zer dagoen bertan.**